

2013KO URRIAREN 9AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bederatzia.

HILABETEA:Urria.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko irailaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA:

Beasaingo argiteria publikorako udal energia plana exekutatzeko barneratutako ekipamendu elektrikoen hornidura eta instalaziorako (flexu-erreguladoreak, arku zeramikoko lanpara halogenuro metalikoak eta ekipamendua, led moduloak eta led luminariak).

Ezagutzera eman da, 2013ko urriaren 7an Kontratazio Mahaiak egindako proposamena:

“AURREKARIAK

Beasaingo argiteria publikorako udal energia plana exekutatzeko barneratutako ekipamendu elektrikoen hornidura eta instalazioa (fluxu-erreguladoreak, arku zeramikoko lanpara halogenuro metalikoak eta ekipamendua, led moduluak eta led luminariak) kontratatzeko, baldintza plegu administratibo eta teknikoak idatzi ziren eta 2013ko uztailaren 15ean Gobernu Batzordeak onartu zituen eta deialdi publikoa egitea erabaki zuen.

Iragarkia, 2013ko uztailaren 17ko, 19ko eta 25eko, Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean, GAOean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, hurrenez hurren. Akats zuzenketak, aldiz data hauetan argitaratu ziren: Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta GAOean 2013ko abuztuaren 7an eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2013ko abuztuaren 12an.

Eskaerak aurkezteko epea 2013ko irailaren 5ean amaitu zen.

Lizitazioan 7 enpresa aurkeztu ziren: TECUNI, S.A., ELEKTRA, M.SOL.S.L., GOIERRIENERGILAN AEEa (IRULEZO, S.L. + AIZKORPE ELEKTRIKARIAK, KOOP. ELK.), IPAR ACISA, S.L., IMESAPI eta SICE.

Gaitasun eta kaudimenari buruzko 1 Kartazala ireki ondoren, dokumentazio gehigarria eskatu zen eta aurkeztu eta aztertu ondoren, gertatu zen ondorengo hiru enpresa hauek, M. SOL S.L., IPAR ACISA e IMESAPI, ez zuten aurkeztu errekeritutatako dokumentazioa eta horren ondorioz, lizitaziotik kanpo geratu ziren.

2013ko irailaren 17an, goizeko bederatzietan (09:00), ekintza publikoan, automatikoki ebaluatzekoak ez diren balioespen-irizpideen inguruko dokumentazioa jasotzen duen, 2 zenbakidun kartazalaren irekitzeari buruzko ekitaldia gauzatu zen, .

Jarraian aipatzen diren irizpide adjudikazioen arabera, Kontratazio Mahaiak urriaren 3ko bileran, txosten teknikoan oinarrituta, automatikoki ezin baloratu daitezken esleipen-irizpideei buruzko eskaintzak baloratu zituen, lizitzaileei ondorengo puntuazioa emanaz:

LICITADOR	EQUIPOS A SUMINISTRAR 22 PUNTOS		MEMORIA TECNICA PARA LA EJECUCION DE LA INSTALACION 14 PUNTOS	ESTUDIOS LUMINOTECNICOS 10 PUNTOS	MEJORAS 4 PUNTOS	TOTAL
	Tablas verificación de características técnicas 18 PUNTOS	Conclusiones 4 PUNTOS				
TECUNI, S.A.	18	4	11,75	10	4	47,75
ELEKTRA	17,19	2	1,4	6	0	26,59
UTE, GOIERRIENE RGILAN						

(IRULEZO, S.L. + AIZKORPE ELEKTRIKARI AK, KOOP. ELK.)	17,52	2	8	10	0	37,52
SICE	17,52	2,5	8	10	3	41,02

Urriaren 4an 3. kartazala irekitzeko ekintza publikoa burutu zen eta aurkeztutako proposamenak, puntuazioak eta balorazio-irizpideen azken taula ondorengoak dira:

a) Irizpidea / Criterio: PROPOSAMEN EKONOMIKOA / PROPUESTA ECONÓMICA						
PRECIO LICITACIÓN	ESKAINTZAK / OFERTAS					PUNTAZIOA PUNTUACIÓN
	EMPRESA	2013. URTEA AÑO 2013	2014. URTEA AÑO 2014	2015. URTEA AÑO 2015	GUZTIRA TOTAL	
339.674,32 € (sin IVA)	TECUNI, S.A.	114.875,97 €	118.463,45 €	85.750,63 €	319.090,05 €	36,28
	ELEKTRA	111.930 €	115.570 €	83.260 €	310.760 €	37,25
	UTE	117.829,88 €	122.015,44 €	90.459 €	330.304,32 €	35,04
	SICE	103.012,88 €	102.603,88 €	76.727,48 €	282.344,24 €	41

B) Irizpidea / Criterio: EPEA HOBETZEA / MEJORA DEL PLAZO				
EMPRESA	ESKAINTZAK / OFERTAS			PUNTAZIOA PUNTUACIÓN
	2013. URTEA AÑO 2013	2014. URTEA AÑO 2014	2015. URTEA AÑO 2015	
TECUNI, S.A.	16	10	10	9
ELEKTRA	16	10	10	9
UTE	16	10	10	9
SICE	16	10	10	9

IRIZPIDEAK CRITERIOS	TECUNI, S.A.	ELEKTRA	UTE, GOIERRIENERGILAN (IRULEZO, S.L. + AIZKORPE ELEKTRIKARIAK, KOOP. ELK.)	SICE
a.- Eskaintza ekonomikoa Oferta económica	36,28	37,25	35,04	41
b.- Epea hobetzea Mejora del plazo	9	9	9	9
c.- Horniduran emateko ekipamenduak Equipos a suministrar	22	19,19	19,52	20,02
d.- Instalazioa exekutatzeko memoria teknikoa Memoria técnica para la ejecución de la instalación	11,75	1,4	8	8
e.- Azterketa luminoteknikoak Estudios luminotécnicos	10	6	10	10
f.- Hobekuntzak Mejoras	4	0	0	3
GUZTIRA / TOTAL	93,03	72.84	81,56	91,02

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak, udal Gobernuari ondorengo proposamen erabakia egiten dio:

Lehenik. EKIPAMENDU ELEKTRIKOEN HORNIDURA ETA INSTALAZIOA (FLUXU-ERREGULADOREAK, ARKU ZERAMIKOKO LANPARA HALOGENURO METALIKOAK ETA EKIPAMENDUA, LED MODULUAK ETA LED LUMINARIAK), BEASAINGO ARGITERIA PUBLIKORAKO UDAL ENERGIA PLANA EGIKARITZEA esleitzea, **TECUNI, S.A.** alde egitea, Udal Gobernuak uztailaren 15ean onartutako baldintza plegu administratibo eta teknikoaren eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Esleipen-prezioa ondorengo da: **319.090,05 €** gehi **67.008,91 €** BEZri dagokiona. Ondorengo ekitaldietan banatuta:

- **2013. Urtea: 114.875,97 € (gehi BEZ).**
- **2014. Urtea: 118.463,45 € (gehi BEZ)**
- **2015. Urtea: 85.750,63 € (gehi BEZ)**

Hirugarren. Esleipenaren ejekuzio-epea ekitaldi bakoitzerako ondorengo izango da:

- 2013. Urtea: 8 lan-egun aste + egun 1.
- 2014. Urtea: 3 lan-egun aste.
- 2015. Urtea: 3 lan-egun aste.

Lan astetzat hartzen da astelehenetik ostiralerako egun baliodunak barneratzen dituenak.

Laugarren. Adjudikaziodunari jakinaraztea, hamar laneguneko epean, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan eguneratuta egotearen ziurtagiria.
- 15.954,50 €ko behin betiko fidantza.
- Kontratua enkantera ateratzeko publizitate gastuak, bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialekoak, bai Estatuko Aldizkari Ofizialekoak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 142. artikulua aipatzen dituenak, ordaindu izana egiaztatzen duen agiria.
- Idatzia non, 2014ko apirilaren 30erako, ondorengo hobekuntzak gauzateko konpromezua hartzen den:
 - Kontratazio eta tarifa analisisia.
 - Udal argiteri publikoaren elementuen digitalizazioa.
- Idatzia non, , 2015eko ekitaldia amaierarako, ondoren aipatzen diren hobekuntzak gauzateko konpromezua hartzen den:
 - Txindoki institutoko bidean 4 plafoi led moduloen horniketa.
 - 546 ekipo programable instalazioa led modulo eta led luminarietan.

- Errepide luminaria erabilera egokia dutenen berrerabilpena.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, behin-betiko esleipena egingo da, horretarako Alkate jaunari baimena emanaz eta jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inoolakori aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkaria naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.